

KURSAAL ELKARGUNEAREN PROIEKTUAREN MEMORIA

Egilea: Rafael Moneo

“Hau bezalako memoriak proiektuak justifikatu ohi dituzte, batera biltzen diren zirkunstantziei arrazoizko erantzun gisa aurketuz. Sarbideak, ikuspegia, bolumetria, programa eta abar, eraikinak hartu duen forma azaltzeko erabiltzen dira, arkitektoaren erantzukizuna zehazgabetuz eta alde zuzeneko datuen eta proiektuaren arteko bitartekari soil bihurtuz. Aldi honetan, ordea, ez da horrela izango, eta argi eta garbi aitortuko dugu **proiektu hau lekua ulertzeko modutik sortzen dela batez ere**, aparteko orubeari emandako berehalako eta zuzeneko erantzun gisa, Donostiako Udalak burutzeko asmoa duen kultur multzo hau altxatzeko.

Donostiak duen edertasuna, neurri handi batean, inguruneari, hau da, paisajeari zor diola esatea, leku arrunt bat baino gehixeago dela esatea da. Hiri gutxi biltzen baitituzte halako baldintza naturalak beren alde. Bizkaiko itsasoaren urak Kontxan gelditzen dira, kostaldearen ibilbide labur honetan eskuliburuetan agertzen ziren akzidente geografiko guztiak sortuz: badia, uharteak, hondartzak, itsasadarrak, mendiak. Eta hiriak, hau da, Donostiak ezarrita dagoen geografiaren historian zehar errespetatzen jakin duelarik. Kurasaalaren orubeari eman diogun erantzuna sinplea da: ez da Urumearen presentzia suntsituko duen eraikinik altxako. Urteetan zehar aztertu izan diren proposamenetako batzuek Gros auzoari gehitutako beste etxadi bat balitz bezala hartu dute orube problematiko hau, eta proposamen haiek nolabait ere hirirako interesgarriak zirela zalantzan jartzen ez dugun arren, ziur gaude, horiek aurrera eramanez gero, Urumea desagertu egingo zela arkitekturak zurgatuta.

Donostia ibaiaren ahoan dago ezarrita, eta ezarleku horrek ikusgai jarraitu behar du. Hiriak, Udalak eraikitzeke asmoa duen kultur multzoak alegia, ez du bere galera bultzatu behar.

Kurasaalaren orubea akzidente geografiko bat da gaur egun ere. Nire ustez berebiziko garrantzia du horrela jarraitzeak, hau da, orubea hiri bihurtzean bere egoera galdu gabe, oraindik ere biltzen dituen ezaugarri naturalak galdu gabe. Arrazoi horregatik, hain zuzen, proiektatutako kultur multzoaren funtsezko osagai diren Auditoriorako eta Kongresu Aretorako egin dugun proposamenak honela definitzen ditu: **bi arroka ikaragarri, Urumea ibaiaren ahoan hondoa jota geratu zirenak, hiriarenak baino gehiago, paisajearen osagai.**

Proiektuaren inguruan egin dugun hurbilketa aitortu ondoren, orain, programa interpretatu eta antolatu den modua azalduko dugu. Lehenik haxe adierazi behar dugu: **gure asmoa orubea akzidente geografiko gisa mantentzen jarraitzea bazen, modu sendo eta zorrotz batean eraiki beharra zegoen.** Auditorioa eta Kongresu Aretoa soilik bolumen autonomo eta libre gisa agertuko dira. Erakusketa-aretoak, bilera-gelak, erabilera horiek eskatzen dituzten zerbitzuak, jantokiak eta abar, plataforman bilduta

geratuko dira, Auditorioaren eta Ganbara Gelaren masa kubikoek lortu behar duten protagonismoa ematen dion plataforman, alegia. Plataformak Auditorioaren eta Ganbara Gelaren presentzia nabarmentzen baitu, bilera-gelak eta erakusketa-gelak bere baitan hartzeaz gain, itsasoaren ikuspegiak gozatzeko moduko altuera ahalbidetuz.

Baina ikus dezagun plataforma hau erabiltzeak eskaintzen digun beste abantaila. Hala, plataforma Zurriola Pasealekura zabalik geratzen da, espazio ireki bat eskainiz eta Auditorio, Ganbara Aretoa, bilera-gela eta erakusketa-aretotarako sarbidea izanik. Espazio zabal honetan bertan, aparkalekuek datozen eskailerak daude, bai eta informazioa eta leihatilak ere.

Gure ustez espazio honek berebiziko garrantzia du multzoaren egiturari, bertan egiten baitute topo multzoak eta hiriak. Bestalde, espazio hau "hondoa jotako arrokak" Kursaalaren orubearen gainean ezartzearen emaitzaz sortutako zirrikituko espazioetako bat da: arroken eta Zurriola Pasealekuko espaloiaren artean sortutakoa, alegia. Zirrikituko gainerako bi espazioak, Itsasaldeko Ibilbideak mugatzen dituenak, bilera-geletarako eta erakusketa-aretotarako beharrezkoak diren espazioak dira: bai bata bai bestea plataformaren azpian.

Orain, "hondoa jotako arrokak" eta Auditorioa eta Ganbara Aretoa barne hartzen dituzten modua deskribatuko dugu. **"Hondoa jotako lehenengo arroka", Auditorioa barne hartzen duena, 60 X 48 X 27ko bolumen prismatikoa bat da, eta itsasorantz zertxobait inklinatuta dago, gure asmoa inklinazio horri "akzidente ia geografikoaren" izaera ematea izanik**, horixe baita eraikinekin izatea nahi genukeen itxura. Eraikuntza metalezko egitura batez eratuta dago, barrualdetik eta kanpoaldetik prentsaturako beirazko blokeekin osaturako pareta bikoitz bat lortzea ahalbidetuz. Sekzioak argi eta garbi erakusten du proposaturako eraikuntza-sistema, gure ustez estankotasuna eta egokitzapena bermatuko lukeena, barrualdeko espazio argia eta neutroa lortuz, kanpoaldearekin izango lukeen lotura itsasoaren gainean zabalik geratutako foyerraren leiho ikusgarriarekin sortutakoa izango litzatekeelarik. Gure ustez beirazko blokea material egokia da Donostiarentzat, itsas haizeak batzuetan hainbeste astindutako hiriarentzat.

Bestalde, **beirazko blokeak masa trinko eta opako bihurtuko luke bolumena, agunargiz isladatzaile eta aldakor, eta gauez argi-iturri erakargarri eta misteriotsu bilakatuz**. Prentsaturako beirazko blokeak asmoz hartu dugun itxura abstraktua eta urruna emango lioke eraikinari zalantzarik gabe.

Beirazko prismaren barrualdean, berez, Auditorioaren bolumena flotatzen eta asimetriak atxikita geratuko litzateke. Asimetriaren bidez, foyerrak oharkabe gidatzen ditu ikusleek pausoak maila altuenerantz, bertatik, eta bere edertasun guztia erakutsiz, itsasoa ikusteko moduan, Urgull mendia honoan duela.

Behoko oinaren inguruan, beharrezko zerbitzu osagarriak daude, hau da, kontseilaritzak, telefonoak, arropazaindegiak eta abar, eta erdialdean komunak. Auditorioa bolumen libre bat izateak bere inguruan oztoporik gabe ibiltzea eta bertara erraz sartzea ahalbidetzen du: musikariak eta berekin ekartzen dituzten zerbitzu guztiak behoko oinean kokatzen baitira. Maila altuagoetara eskailera, igogailu eta Auditorioaren bolumenaren inguruan dauden arrapalaren bidez sartzen da, hala trabarik gabe ibiltzea

bermatuz. **Itsasoaren gaineko leiho zabalak ikusleak topatzea eragingo luke jakina, jantokiaren gainean kokatutako taberna, beste erakargunea alegia, hiriaren gaineko ikuspegi ikusgarriez gozatzeko beste lekua izanik.**

Orain, labur-labur, auditorio-motari buruz arituko gara. Hemen proposatzen dugun soluziobideak akustikako teknikari, musikari, zuzendari eta interpreteen iritziz onenak diren auditoriak hartu ditu eredutzat. Halako auditorioak nahiko angeluzuzenak dira, luzera/zabalera erlazioan karratu bikoitzera hurbiltzen diren dimentsioak, sabai lauak eta ikusleko hamar metro kubikora ia iristen den bolumena bermatzen duten altuerak dituztenak.

Amsterdamgo Concertgebouw, Vienako Musikvereinssaal eta Boston Symphony Hall auditorioak hartu ditugu adibide gisa. Hemen eskaintzen dugun berrikuntza aretoaren jarraitasuna da: edozein atetik iritsi daiteke edozein eserlekura, gerta daitekeen edozein diskriminazio saihestuz. Proiektatutako Auditorioak bere baitan 2.000 ikusle hartzeko adina leku du eta gure ustez ez da beharrezkoa xehetasun gehiago aipatzea bere ezaugarri akustikoei buruz, zeren eta, ezer aurreratu nahi izateak proiektuaren etapa honetan oraindik finkatzeko dauden baldintzak eta materialak aldeztu aurretik definitzea eskatuko bailuke.

Musikariei eta kanpoko zerbitzuei dagokienez (entseietarako aretoak, orkestrako musikari, interprete eta zuzendarientzako kamerinoak, areto berdea, liburutegia eta partituroteka eta abar) lehenengo sotoan antolatu dira, prismaren oinarriarekin bat etorriz. Adierazi beharra dago soto hau plataformatik zenitalki argitu eta aireztatzen dela, hala, dagozkion erosotasun-baldintzak bermatuz. Oinplanoa aztertuz gero, musikarientzako zerbitzuek dimentsio zabalak dituztela antzematen da, eszenatokira zuzenean sartzeko moduan. Zerbitzuen eta Kongresu Aretoaren arteko loturak, beharrezkoa izanez gero, Ganbara Musika gisa erabiltzeko aukera emango luke.

Musikarien sarbidea eskailera independente baten bidez sortzen da, hain zuzen ere Zurriola Pasealekuko espazio estalitik hasten den eskaileraren bidez. Biltegiarako sarbidea, berriz, aurrerago deskribatuko dugun karga eta deskargarako nasatik sortzen da.

Konposizioari eta egiturari dagokienez antzeko irizpideei jarraituz proiektatu da **Ganbara Aretoa. Aretoa prisma bati atxikita geratzen da, hemen ere nahiko inklinatuta dagoen 42 X 36 X 24ko prismari. Asimetria hemen ez da hain nabarmena, baina foyerretik ikuspegiak ikusgarriak dira baita ere, bertatik itsasoa Uli mendia hondoan dela ikus baitaiteke.** Esan beharra dago Kongresu Aretoa programak eskatzen duen bilera-gelekin lotuta dagoela, batera zein bestera independentzia osoz sartzeko moduan. Bilera-gelak maila baxuago batean daude kokatuta, lehenengo sotoaren mailan, plataformaren azpian hain zuzen. Horien altuera libreak sei metro inguru izango luke eta argi naturala edukitzea izango litzateke asmoa, plataforman kokatutako argizuloen bitartez. Erakusketa-aretoak ere lehenengo sotoan kokatuko lirateke, plataformaren azpian hain zuzen, eta bilera-gelak bezala argitu eta hornituko lirateke; beraz, haiei buruz lehen esan duguna ez dago errepikatu beharrik.

Gure ustez interes berezia duen zerbitzu osagarrietako bat jatetxea da. Zalantzarik gabe, kultur konplexua donostiarren eguneroko bizitzan integratzen lagunduko luke beharrezko konfiantza eskainiz. Eta hori kontuan izanik, arretaz aukeratu da bere

kokalekua. **Jatetxeak ondo zaindu beharreko elementua izan behar luke, ondo orientatua eta babestua, eta hirira begira.** Bestalde, jatetxearen zerbitzuak Auditoriora zabalduko lirateke, eta beraz bertikal berean kokatu dira. Arreta berezia jarri da hornikuntza eta garbitasuna bezalako alderdietan, eta horiei buruz aurrerago arituko gara.

Bestalde, aparkalekuek eta sarbideek garrantzi handia dute. Hau bezalako eraikin batera hurbiltzeak erraza izan behar luke, sortzen dituen lehen eta bigarren mailako jarduerak kontuan hartuta, eta hori, eta hortxe dago zailtasuna, hiriaren sare arterial hauskorra hautsi gabe lortu behar da, ondo ezarritako hiri-ehunaren kaltetan izan gabe.

Sarbideari emandako soluziobidea argia da: dimentsio handiko helikoidea aparkalekuaren mailetara heltzeko sarrera izango litzateke, eta beheratutako kalea, Zurriola Pasealekuarekiko paralelo, bulego desberdinen zerbitzurako izango litzateke. Barrualdeko kale horretatik, karga eta deskargarako nasa egokiak bertan izanik, erakusketa-aretoaren eta auditorioen biltegi-tara sar daiteke. Kale horretatik bertatik ere, jatetxerako zerbitzuak kokatuko lirateke, adibidez, hornikuntza eta zaborren bilketa. Barrualdeko kale honek zerbitzu-mota hauek guztiak inolako interferentziarik gabe bete ahal izateko aukera eskaintzen du. Beheko bi mailetan kokatutako aparkalekuari dagokionez, oinplanoek argi erakusten dute bere antolamendua. Helikoideak aparkalekuaren gurutzegunerik gabeko sarrera eta irteera bermatzen du, eta zerbitzu-mota honetarako beharrezkoa den dimentsioa du.

Aparkalekuan 720 ibilgailuentzako tokia dago. Eskaileren eta igogailuen bidez, Zurriola Pasealekuaren mailara hel daiteke, hala, Auditoriorako eta Kongresu Aretoarako sarbidea erraztuz, bai eta erakusketa-aretoetarako eta bilera-geletarako sarbidea ere.

Kanpoaldeko espazioei, plataformei, eta pasealekuari buruz arituko gara azkenik. Kultur multzo berria garrantzi handiko gertakaria izango litzateke, ibiltariak Ulia eta Igeldo artean egin dezakeen ibilbide harrigarri eta zoragarria. Horregatik, zolatutako galtzaden dimentsioak errespetatu ditugu, nahiz eta aldaketa nabarmenak egin beharko liratekeen erremate, arrapala, eskailera, babes eta abarretan: kulturune berri honek duen garrantziagatik komeni baita sektorea birmoldatzea. **Hemen egindako proposamenean, plataformak espazio publiko eta ireki gisa hartu behar dira, Gros auzoko hiri-egituran erabateko inpaktua izango bailukete, espazio horietatik itsasoarekin eta kostaldeko paisajearekin topo eginez.** Beraz, proposamen honetan plataforma horien azterlanak eta proiektuak duen garrantzia adierazi behar da.

Bukatzeko, Donostiak, Kurasaaleko orubeak eta Urumeak merezi duten proiektua izatea da gure benetako nahia”.

Rafel Moneo
Madril, 1990